



BILBAO HIRIA 31. POP-ROCK LEHIAKETA

LEHIAKETAREN OINARRIAK

Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Saileko Gazteen Gaietarako Zerbitzuak Bilbo Hiria Pop Rock Lehiaketa antolatzen du. Lehiaketa hau gazteek osatutako Europako taldeei zuzenduta dago, talde hasiberrien musika bultzatzeko eta zabaltzeko. 3 musika-modalitate ditu lehiaketak:

- **Urban estiloa:** Rap-a (hip hop-a), trap-a, reggae-a, dancehall-a, afrotrap-a, afrobeat-a, funk-a, soul-a, R&B soinua, jazz garaikidea, trip hop-a, grime soinua, electropical soinua, chip music-a, 8-bit soinua, musika elektronikoa, ambient soinua, industrial estiloa, electrocumbia soinua, dub soinua, hardstyle soinua, house soinua, breakbeat-a, disco-a, techno-a, trance soinua, minimal estiloa, drum'n'bass soinua, electro eta beste konbinazio batzuk.
- **Metal estiloa:** Heavy-a, rock gogorra, power estiloa, thrash soinua, speed-a, death soinua, grind-a, black estiloa, doom-a, gotikoa, industrial estiloa, AOR, hardcore-a, nu metal-a, rap metalikoa, metal alternatiboa eta beste konbinazio batzuk.
- **Pop-Rock estiloa:** Rock-a, esperimental, psikodelia, instrumentala, math estiloa, post rock-a, art rock-a, rock and roll-a, rhythm&blues *soinua*, folk rock-a, amerikarra, hard rock-a, stoner soinua, garage estiloa, noise-a, hard core-a, punk rock-a, ska-reggae soinua, emo estiloa, alternatiboa, indie soinua, pop-a, tecno pop-a, power pop-a eta beste konbinazio batzuk.

BAT.- BALDINTZAK: Lehiaketan Europako taldeek har dezakete parte, baldintza hauek betetzen badituzte:

- Taldeko kide guztien adina 1984ko urtarrilaren 1etik 2001ko abenduaren 31ra bitartekoa izatea. Taldean kide bi edo gehiago daudenean, 1984ko urtarrilaren 1a baino lehen jaiotako kide bakarra izatea onartuko da.
- BILBAO HIRIA POP-ROCK LEHIAKETAREN aurreko edizioetako edozein modalitatetan lehen saria irabazi ez izana.
- Konposizioak jatorrizkoak izango dira. Antolatzailerek eskatuz gero, lehiatzaileak egilea bera dela frogatu beharko du.

Antolatzailerek, lehiaketaren edozein fasetan, lehiaketatik kanpo utziko ditu baldintza hauek betetzen ez dituzten taldeak.

BI.- IZENA EMATEA:

Taldeek lehiaketaren hiru modalitateetako batean emango dute izena. Hala ere, antolatzaileek, egokitzen joz gero, inskripzioak zuzendu ahal izango dituzte.

Izena emateko epea **2019ko apirilaren 1etik maiatzaren 5era** da, biak barne, eta www.bilbao.eus/bilborock web orriaren bidez egingo da, bertan dagoen inprimakia beteta eta honako hauek bidalia:

- 3 kanta mp3, ogg edo wma formatuan.
- argazki bat jpg, bmp edo png formatuan.
- taldearen ibilbidea doc, docx, odt edo pdf formatuan.
- musika-taldeak sare sozialetan dituen profilak (Facebook, Twitter, Instagram, etab.)
- editatu gabeko bideo baterako esteka, bai zuzenekoa, bai entsegu batekoa (taldea zuzenean jotzen, bideoklip formaturik ez)

Izen-ematean "ordezkari" agertzen denak taldekidea izan eta kontzertuetarako joan behar du beharrezko dokumentazioa izenpetzera, geroago taldekideei dietak eta sariak ordaindu ahal izateko.

HIRU.-. EPAIMAHAI. LEHIAKETAREN FASEAK

Epaimahai bat egongo da modalitate bakoitzerako.

1. FASEA: 32 talde aukeratzea

Lehiaketan izena emandako talde guztietatik musika arloko profesionalak osatutako epaimahaiak 2. faseara pasatuko diren 32 talde aukeratuko ditu:

- Pop Rockeko 16 talde
- Metaleko 8 talde
- Urbaneko 8 talde

Epaimahaiak aldatu egin ahal izango du banaketa hori.

2. FASEA: Zuzeneko emanaldiak.

Aukeratutako taldeek zuzenean joko dute Bilborocken irailean eta urrian, antolatzaileek ezartzen dituzten egunetan eta orduetan. Epaimahaiaren musikaren arloko profesionalak, musikarekin lotutako gazteak eta kontzertuetako ikusleak egongo dira, eta hauek 3 talde aukeratuko dituzte modalitate bakoitzeko:

3. FASEA: Azken kontzertuak

Aukeratutako taldeek azken kontzertuetan joko dute azaroan, antolatzaileek ezartzen dituzten egunetan eta orduetan. Finalak egun hauetan izango dira:

- Pop-Rock: urriak 17 osteguna
- Metal: urriak 18 ostirala

- Urban: urriak 19 larunbata

Epaimahaikideek kategoria bakoitzeko kontzertuen ostean emango dute haien epaia.

Epaia jakitera ematea

Epaia Lehiaketaren eta Udalaren web orrietan argitaratuko da. Banakako sarietan sarituaren izen-abizenak, taldea, kategoria eta jasotako saria argitaratuko dira. Saria bandei ematen zaienean taldearen izena, kategoria eta saria argitaratuko da.

LAU.- SARIDUNEK 2 FASEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Parte-hartzaileek Bilboko Udalaren eta beste ogasunen zergak eta Gizarte Segurantzaren obligazioak ordainduta eduki behar dituzte. Hala izan behar izango da eskabideak aurkeztean eta hura izapidetzeko prozesu osoan. Kontzertuak baino lehen (bigarren fasea), kide bakoitzak antolakuntzak eskatutako epearen barruan bete behar izango du dokumentazioa (ekaineko lehenengo hamabostaldian izango dela aurreikusi da):

- Ziurtagiri positiboa, foru ogasunaren (edo helbidearen arabera dagokion ogasunaren) betebeharrak ordainduta dituela adierazten duena.
- Ziurtagiri positiboa, Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak ordainduta dituela adierazten duena.
- Diru-laguntzei buruzko Legearen 13. artikulua eta Gizonezkoen eta Emakumezkoen berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikulua ezarritako debekuetan ez dagoela ziurtatzen duen erantzukizuneko adierazpena. Gazteria eta Kirol Sailak emango du eredia.
- Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako ziurtagirien ordeztasuneko ADIERAPENA aurkez daiteke, onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoa ez bada 3.000 euro baino handiagoa.
- Onuradunek EZ BADAUKATE EGOITZA FISKALA ESPAINIAN, aipatutako ziurtagirien ordeztasuneko fiskalaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, bizi diren herrialdeko agintari eskudunek emandakoa.

Talde kideren batek aipatutako dokumentazio hori aurkeztu ezean, taldeak ezin izango du bigarren fasean parte hartu.

BOST.- 2. ETA 3. FASEETARAKO ARAUAK

- Zuzeneko emanaldiak hasi aurretik, jabe gozko intelektualaren euren eskubideak defendatzen dituen erakunderen batean erregistratuta badauzkate euren abestiak, horren berri eman beharko diete Lehiaketaren antolatzaileei.
- Zuzenean joko duten taldeetako kideak inskripzioan agertzen diren berberak izango dira. Kideren bat aldatuz gero, ezinbesteko arrazoiengatik dela justifikatu beharko da eta antolatzaileek baimendu egin beharko dute aldaketa hori. Edozelan ere, ordeztasuneko kideak oinarri hauetako baldintzak bete beharko ditu.
- Taldeek laguntza ekonomikoa jasoko dute Bilbora etortzeko eta bertan jotzeko gastuetarako. Taldearen jatorria kontuan hartuta, hauek izango dira zenbatekoak:

- 180,00 €, Bizkaia.
- 250,00 €, Araba, Gipuzkoa, Kantabria, Errioxa, Nafarroa, Asturias.
- 400,00 €, Madrid, Gaztela eta Leon, Aragoi.
- 500,00 €, Valentzia, Gaztela-Mantxa, Extremadura, Galizia, Murtzia.
- 600,00 €, Andaluzia, Catalunya.
- 750,00 €, Balearrak, Ceuta eta Melilla.
- 900,00 €, Kanariak.
- 700,00 €, Frantzia, Portugal, Holanda, Luxemburgo, Belgika, Suitza.
- 1.400,00 €, Italia, Erresuma Batua, Irlanda, Suedia, Finlandia, Danimarka, Norvegia, Alemania, Austria, Txekiar Errepublikak, Errumania, Bulgaria, Zipre, Grezia, Hungaria, Polonia, Eslovakia, Albania, Mazedonia (FYRM), Montenegro, Serbia, Bosnia-Herzegovina, Kroazia, Eslovenia, Estonia, Letonia, Lituania, Islandia, Malta.

SEI.- SARIAK

6.1 Sariak eskudirutan:

Pop-Rock kategoria		Metal kategoria		Urban kategoria	
1º	4.000 €	1º	4.000 €	1º	4.000 €
2º	2.000 €	2º	2.000 €	2º	2.000 €
3º	1.300 €	3º	1.300 €	3º	1.300 €

Epaimahaiaren sari berezia (Bizkaiko talde edo bakarlariari): 1.000 euro.

Diru-kopuru horri indarrean dauden arau fiskalekin bat etorrita nahitaezkoak diren atxikipenak aplikatuko zaizkio.

6.2 Bestelako sariak:

- “Bilbo Hiria” saria Bilboko/Bizkaiko talde onenari*: Bilborock aretoan emanaldi bat 2020an.
- “Bilborock” saria Bizkaiko talde nabarmenari: Entsegu-lokalak 100 orduz erabiltzeko aukera.
- “Andreak musika alorrean sustatzeko eta ahalduzaren aldeko” saria: “MUJERES EN LA INDUSTRIA DE LA MÚSICA (MIM)” / “ANDREAK MUSIKAREN INDUSTRIAN” izeneko ekimenak antolatutako prestakuntzako 4 tailer, Bilborockeko entsegu-lokalak 40 orduz orduz erabiltzeko aukera eta Bilbo Hiria Pop-Rock lehiaketaren hurrengo edizioa aurkezteko kontzertua horretarako aurreikusita dauden guneetako batean.
- “Aste Nagusia” saria Bilboko/Bizkaiko talde onenari* (*PopRock* edo *Metal* estiloetan). Emanaldi bat 2020ko Aste Nagusian Bertako Rockari eskainitako agertokian.
- “Azkena Rock Festival” saria: Emanaldi bat 2020ko Azkena Rock jaialdian Euskal Herriko talde nabarmenari.
- “Resurrection Fest” saria: Emanaldi bat *Resurrection Fest* izeneko jaialdian metal estiloko talde nabarmenari.
- “Stereozona” saria: Stereozona webguneak aukeratutako taldearen bideokliparen grabazioa.
- “Letamina” saria: Taldearen neurriko prestakuntzako 2 tailer.
- “Sarvide” saria: Kategoria bakoitzeko talde irabazleentzako 250 CD argitaratzea.
- “Shake” saria: Aukeratutako rock taldearen kontzertua *Shake* aretoan.

- “Kultura Live” saria: Talde irabazlearen jatorrizko probintzian dagoen *Kultura Live* enpresako areto batean kontzertua eta 400 euro dietatan.
- “Zarata Mondosonoro” saria: *Zarata Mondosonoro* aldizkarian elkarrizketa eta horren berri ematea sare sozialetan.
- “FNAC” saria: Kontzertu erdi-akustikoa epaimahaikideek talde bozkatuenarekin.

Epaimahaikideek esleitu barik utzi dezakete edozein sari.

*Bilboko/Bizkaiko taldetzat jotzeko, taldekide bat gutxienez Bilbon edo Bizkaiko udalerrri batean erroldatuta egon behar du.

ZAZPI.- HIRUGARRENEN ESKUBIDEAK ETA BAIMENAK

Parte-hartzaileek bidaltzen dituzten kantez hirugarrenen egile-eskubideak urratuz gero, antolatzaileek ez dute euren gain hartuko horren ardura eta parte-hartzaileak eurak izango dira erreklamazioaren ardura edukiko duten bakarrak.

Lehiaketan parte hartzen dutenek baimena emango diote Gazteria eta Kirol Sailari, lehiaketan parte hartzeagatik sortutako irudiei eta musikari zabalkundea emateko, merkataritzako erabilerarik gabe; baita lehiaketara aurkeztutako kanten grabazioa ere kontzertuen zabalkundea egiteko ere.

ZORTZI.- OINARRIEN ONARPENA: Lehiaketan parte hartzeak izena emandako kide guztiek oinarri hauek onartu dituztela esan nahi du.

Antolatzaileek aldaketa egin ditzakete oinarri hauetan, lehiaketa modu zuzenean gauzatzeko.

BEDERATZI. Oinarri hauetan araututa ez dauden kasuetan, beraien orde, Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra aplikatuko da. Bilboko Udalak 2016ko ekainaren 30ean onartu zuen ordenantza hori eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2016ko uztailaren 20an (138. Zenbakia) argitaratu zen.

INFORMAZIOA:

Telefonoa: 944 151 306

Helbide elektronikoa: bilborock@bilbao.eus

Web orria: www.bilbao.eus/bilborock